



Todos somos culpables
Tortura Sistemática

Live & Demo collection 84-85
Truco Espárrago, 2013

Nostalgia Sistemátikoa

TORTURA SISTEMÁTIKA hardcore rock talde tolosarra sortu zenetik 28 urte igaro diren honetan, Asturiaseko tipo ausart batek, Truco Espárrago zigiluaren arduradunak, taldearen “maketa” deiturikoak argitaratu dizkigu. Gaur eta hemen, youtubek, googlek eta sare sozialek osatzen duten gure mundu honetan.

Ez dakit zenbat izango ginen garai hartan haiek entzunez sistematikoki torturatzen ginenak. Kalkulatzen dut agian berrogeita hamar bat izango ginela, Tolosaldekoak gehienak; eta eskuzabalago jokatuta, beharbada bostehun edo milara ere helduko ginen, modu global, mundial, unibertsal eta estratosferaz gaindikioan esanda.

Ekar dezagun gogora orduko teknologia musika-la. Maketa, zinta magnetikozko kasette, binilozko single, Ep eta Lp-en sasoiak ziren; tocatek orratzaz eta bozgorailuz funtzionatzen zuten, eta irrati-kasetteei tekla lodikoteak sakatu behar izaten zitzaizkien soinua erreproduzitzeko edo zinta atzera eta aurrera biltzeko. Maketarik grabatzen bazenuen, postaz igorri behar izaten zenion entzuleztat nahiko zenukeen horri, edota kontzertuetan saldu eta banatu behar izaten zenuen maketa. Kontzertuak lortzeko ordea, lehenik eta behin maketa zabaldu beharra zegoen, edo taldea nolabait ezagutzera eman. Hain zuzen, T.S.ren kasuan, jardun horretan buru-belarri aritu zen Javi, *Destruye* fanzinearen editorea. Hari esker lortu zituzten kontzertu mordoa bai herrieta-ko festetan eta bai gaztetxeetan –garai hartako “proto” gaztetxeetan–.

Artean askotxo falta zen etxeko grabazioak egin bezain laster Mendebaldeko gizartearen gailu pribatu eta niminoetan entzuteko aukera sor zedin, egun den legez. Tortura Sistemátika bezalako “banda” narras eta bitartekorik gabekoek, *egin zerorrek* filosofiaren muturraren muturreko praktikatzaileek, buruz burukoa izaten zuten salbazioa, loria eta miseria. Alegia, kontzertuak. Paradoxikoki, gaurko edozein bandari gertatu ohi zaion moduan.

Kontzertuei esker erdietsi ziren bostehun, beharbada mila, edo bi mila jarraitzaile horiek, eta haiei esker sortu zen hardcore talde tolosarraren “legenda”. Izan ere, etxeko grabazioen soinu kali-

tateak, alegia teknologiak, nekez limurtuko baitzuten entzuleak.

Tortura Sistemátika taldearen kontzertuak bere kideen eta lortzen zuten sonoritatearen ispilu ziren: gogorrak, murrizak, kaotikoak, soinu gonbitoak. Shanti bezain teatralak, Lanber bezain kaotikoak, Joxi bezain zuzenak, Txanpi bezain gogorrak. Drakek eta Enekok ere jotzen zuten bateria. Biak ala biak, Txanpi bezala, BAP! taldeko kideak ziren. Kontzertu ikaragarriak eskaini zituzten elkarrekin. Bazuten, gainera, “himnoa” ere. Alegia, kontzertuen amaieran eskaini ohi zuten abestia, denok espero genuena, biltzen ginen guztiok (berrogeita hamar inguru horiek, gizonezkoak gehienak) buruz gene-kiena, eta, normalean mozkor-mozkor eginda, koruan kantatzen genuena: *Guañen etxera...* Lanberren amonaren hitzez sortua, Lanberren beraren riff amaiezinez osatua, hain zuzen ere Torturaren gaine-arako abestien estiloarekin bat ez zetozen punteoz osatua. Punteo hauek hain ziren luzeak, hain heavy-sinfoniko motakoak, ezen Shantik “Bukatu abestia” erantsi ziola hitzari. Piezarik tolosarrera zen zentzu guztietan, ganberroa zelako, eta *inauteri betekoa*.

Grabazioak berreditatu ahal dira, bai, baina ezinezkoa izango da kontzertu ikaragarri haiek berriro ematea, lau kideak “Hardcoreko dinosauroak ez dira sekula hilen” moduko ekimen baterako elkartuta ere. Orain eta hemen, Lanberrek giltzurrun bat transplantatua izateaz gain margotzen ematen du eguna; Shantik kateme bat dauka eta Lobo Eléctrico taldeko frontmana da; Joxi kazetaria da ofizioz eta bi haurren aita; eta Txanpi soinu-teknikariak, bi seme-alaba eta baratzea ditu.

Nolanahi dela ere, Tortura Sistemátikak izan zuen dimentsioa kontuan izanik, meritua du haien soinua beste batzuen gozamenerako berreskuratu izana 2013an, grabazio paregabe haien DVD edizio honen bitartez. Nahiz eta, ondo pentsatuta, ez den meritu kontua. Tortura Sistemátikakoek garai hartan *zirena* egiten zuten, ez beste. Eta horrek, iraun egiten du. ■

Yurre Ugarte

